# Editorial

Cambiamos de formato. Zergak, a partir del presente número será una revista digital. No obstante queremos preservar el carácter y la apariencia de la revista, de modo que su lectura difiera lo menos posible del formato clásico en papel que hemos venido utilizando desde nuestro primer número allá en el año 1993. Deseamos que este nuevo formato, abierto a todas las personas interesadas en esta materia, pueda hacer nuestra publicación más accesible.

La crisis actual sigue siendo el eje central de las políticas de todas las Administraciones, ahora ya centradas con mucha más claridad en un debate, tanto cuantitativo como cualitativo, sobre sus ingresos y gastos, lo que sin duda provocará movimientos en nuestro ámbito tributario, movimientos de los que daremos puntual cuenta.

Nuestra actualidad fiscal, en lo que se refiere a la actividad de nuestras Haciendas Forales, se ha visto afectada por el proceso electoral de esta primavera. Las nuevas Juntas Generales de nuestros Territorios Históricos han iniciado ya su andadura, con importantes cambios en su composición, lo que a buen seguro implicará un renovado debate sobre nuestra fiscalidad.

En cualquier caso, no se ha detenido la producción normativa de nuestras haciendas. Los Servicios de Normativa Tributaria o Política Fiscal de las Diputaciones Forales, detallan en este apartado de la revista las disposiciones más relevantes aprobadas y publicadas des

Formatua aldatu dugu. *Zergak*, zenbaki honetatik aurrera, aldizkari digitala izango da. Hala ere, aldizkariaren izaera eta itxura zaindu nahi izan ditugu, ahalik eta aldaketa gutxien izan dezan 1993. urtean lehenengo zenbakia argitaratu zenetik erabili izan dugun paperezko formatu klasikoarekin alderatuz. Formatu honen bidez, argitalpena eskuragarriagoa izatea nahi dugu gai honetaz jakin-mina duen pertsona guztientzat.

Administrazio guztien politiken ardatz nagusia gaur egungo krisia da, orain argiago daudela diru-sarrera eta gastuei buruzko eztabaida kuantitatibo zein kualitatibo batean murgilduta. Horrek, zalantzarik gabe, mugimenduak eragingo ditu geure zerga-eremuan, eta mugimendu horiei buruzko informazio guztia emango dugu.

Gaur egungo zergei dagokienez, geure foru-ogasunen jarduerak udaberri honetako hauteskunde-prozesuaren eragina izan du. Gure lurralde historikoetako batzar nagusi berriak lanean hasi dira, eta aldaketa garrantzitsuak egin dituzte euren osaeran, eta horrek, segur aski, gure zerga-arloari buruzko eztabaida berria ekarriko du.

Nolanahi ere, gur ogasunen arau-ekoizpena ez da geratu. Goru-aldundietako zerga-araudiaren zerbitzuek edo zerga-politikako zerbitzuek lurralde historiko bakoitzean 2011ko urtarriletik 2011ko irailaren 1era bitartean onetsi eta argitaratu diren zerga-izaerako

de enero de 2011 hasta 1 de septiembre de 2011 en cada uno de los Territorios Históricos.

La Delegación de Euskadi en Bruselas efectúa su completo informe sobre la actualidad tributaria europea durante el primer semestre de esta año y, también ahora de forma obligada, las cuestiones vinculadas a la política económica de la Unión Europea, citando en primer lugar las prioridades del este semestre y un amplio resumen de los acuerdos alcanza-dos en el Consejo Europeo celebrado a fina-les del pasado mes de marzo.

En materia de fiscalidad directa, destaca, por novedosa y por las repercusiones que su aprobación podrían tener, la propuesta de Directiva relativa a una base imponible consolidada común del impuesto sobre sociedades (BICCIS). Se pretende con ella llegar a un sistema común de cálculo de la base imponible de las empresas que operan en la UE.

En lo que a la imposición indirecta respecta, además de las novedades relativas a IVA e Impuestos Especiales, con nuevas propuestas normativas en diversas fases de tramitación. Destaca también en esta área el renovado debate sobre la tributación de las transacciones y actividades financieras, debate que a buen seguro se extenderá en los próximos meses, con posiciones e intereses dispares entre los Estados miembros y, asimismo la Comisión Europea.

Este número de Zergak cuenta con tres colaboraciones. La primera de ellas ha sido elaborada por Javier Armentia Basterra, Jefe del Servicio de Normativa Tributaria de la Diputación Foral de Álava, con el título “La compensación de créditos y deudas tributarias del propio obligado tributario y la cesión de créditos de un obligado tributario para la cancelación de deudas tributarias de un tercero.” El trabajo tiene por objeto explicar con detenimiento el funcionamiento de estas dos materias, que se han incorporado al ordenamiento tributario alavés recientemente, y que

xedapen garrantzitsuenak zehaztu dituzte atal honetan.

Euskadiren Bruselako Ordezkaritzak Europako zerga-arloak urte honetako lehenengo seihilekoan izandako gaurkotasunari buruzko txostena egin du. Orain gainera, nahitaez, Europar Batasuneko politika ekonomikoari lotutako gaiak ere aztertu behar izan ditu. Lehenengo eta behin seihileko honetako lehentasunak aipatu ditu, eta martxoaren amaieran egin zen Europako Kontseiluan lortutako akordioen laburpen zabala ere egin du.

Zuzeneko zerga-arloari dagokionez, sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri bateratu komunari buruzko zuzentarau-proposamena nabarmendu behar da, berria delako eta hori onesteak izan ditzakeen ondorioengatik. Europar Batasunean jarduten duten enpresen zerga-oinarria kalkulatzeko sistema komuna lortu nahi da horrekin.

Zeharkako zerga-arloari dagokionez, BEZari eta zerga bereziei buruzko berrikuntzez gain, araudi-proposamen berriak egin dira hainbat izapidetze-fasetan. Arlo honetan nabarmentzekoa da, baita ere, finantza-transakzioen eta finantza-jardueren zergei buruz sortu den eztabaida berria. Eztabaida hori, ziurrenik, hurrengo hilabeteetan zabalduko da, eta jarrera eta interes ezberdinak izango dira estatu kideen artean, baita Europako Batzordean ere.

Zergak aldizkariaren zenbaki honek hiru kolaborazio ditu: Lehenengoa Javier Armentia Basterra Arabako Foru Aldundiko Zerga Araudiaren Zerbitzuko buruak egin du, eta honakoa da bere izenburua: “La compensación de créditos y deudas tributarias del propio obligado tributario y la cesión de créditos de un obligado tributario para la cancelación de deudas tributarias de un tercero.” Lanaren helburua da zehatz azaltzea gai bi horien funtzionamendua. Gai horiek duela gutxi sartu dira Arabako zerga-

persiguen facilitar el cumplimiento de las obligaciones tributarias, además de proporcionar cierta ventaja financiera por la posibilidad de compensar deudas con créditos tributarios. El análisis se realiza en cada una de las dos materias siguiendo un guión paralelo.

En primer lugar se analiza la compensación de créditos y deudas tributarias de un mismo obligado, en definitiva, un sistema de cuenta corriente tributaria. Se analizan las incompatibilidades de este sistema con otras modalidades de extinción de la deuda tributaria, los requisitos que deben cumplir los propios obligados tributarios, fundamentalmente estar al corriente de las obligaciones tributarias, las deudas y créditos objeto de compensación, y otras cuestiones relacionadas con este sistema de cuenta corriente.

La segunda parte del trabajo analiza la cesión de créditos para la cancelación de la deuda tributaria de otro obligado tributario, como ya hemos indicado con el mismo esquema que en el apartado anterior.

Lourdes Serna Blanco, Profesora Titular de Escuela Universitaria del Departamento de Economía Aplicada II, en la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de la Universidad del País Vasco firma la segunda de nuestras colaboraciones. Su título, “El gravamen sobre los documentos notariales: territorio común versus territorios forales del País Vasco”, indica claramente su objeto. El Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados tiene la naturaleza de tributo cedido para las Comunidades Autónomas de régimen común, ostentando éstas capacidad normativa, además de las competencias de gestión, liquidación, recaudación e inspección.

En el País Vasco, como en la Comunidad Foral de Navarra, este tributo es un tributo concertado sobre el que las instituciones forales tienen plena capacidad normativa con algunas excepciones.

antolamenduan eta zerga-betebeharrak betetzeko modua erraztea dute xede, zorral zerga-kredituekin konpentsatzeko aukeraren bitartez nolabaiteko zerga-abantaila emateaz gain. Azterketa gai bietan egin da, gidoi paraleloari jarraituz.

Lehenengo eta behin obligaziodun baten zerga-zorren eta kredituen konpentsazioa aztertu da, hau da, zerga gaietako kontu korrontearen sistema. Sistema honek zerga-zorra iraungitzeko beste modalitate batzuekin dituen bateraezintasunak, zerga-obligaziodunek bete behar dituzten baldintzak (batez ere zerga-obligazioak egunean ordainduta izatea), konpentsatu beharreko zorrak eta kredituak eta kontu korrontearen sistema honekin lotutako bestelako gaiak aztertzen dira.

Lanaren bigarren zatian zerga-zorra kitatzeko beste zerga-obligaziodun baten kredituak lagatzeko aukera aztertzen da, aurreko ataleko eskema berarekin, arestian aipatu dugun bezala.

Lourdes Serna Blanco Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen baitako Unibertsitate Eskolako irakasle titularrak (Ekonomia Aplikatua Departamentua) idatzi du bigarren kolaborazioa. Izenburua “El gravamen sobre los documentos notariales: territorio común versus territorios forales del País Vasco” da, eta bertan argi geratzen da zein den helburua. Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak araubide komuneko autonomia-erkidegoetarako lagatako zergaren izaera dauka, eta erkidego horiek araudiak egiteko gaitasuna dute, kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeko eskumenez gain.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan bezala, zerga itundua da, eta foru-erakundeek araudiak egiteko gaitasun osoa dute, salbuespenak salbuespen.

Pues bien, el desarrollo de esta capacidad normativa, ha provocado, obviamente, diferencias entre los distintos ámbitos, que de forma resumida y sintetizada son analizadas ahora en este trabajo, centrándose el análisis en una de las modalidades que confluyen en este impuesto: el gravamen de los documentos notariales, dentro de los Actos Jurídicos Documentados.

Para ello, describe la tributación de los docu-mentos notariales en territorio común y en cada una de las Comunidades Autónomas para com-pararla con la tributación vigente en nuestros Territorios Históricos, incorporando finalmente una serie de cuadros resumen que compendian y facilitan un análisis global de esta tributación.

El tercer y último trabajo contenido en el pre-sente número de Zergak tiene por título "La tributación de los convenios de colaboración empresarial en actividades de interés general como instrumento de mecenazgo". Su autor es Juan Calvo Vérgez, Profesor Titular de Derecho Financiero y Tributario. Universidad de Extrema-dura. El autor realiza un pormenorizado análisis de esta figura que se halla enmarcada en el marco del mecenazgo, pero que tiene grandes similitudes con otras figuras ajenas a dicho ámbi-to, fundamentalmente el patrocinio publicitario.

El autor delimita en primer lugar la figura de los convenios de colaboración, detallado de los distintos elementos esenciales que lo ca-racteriza, diferenciándolo del contrato de patrocinio, para después analizar el particular régimen tributario aplicable a ambas figuras.

Posteriormente analiza los elementos subje-tivos que participan en esta figura, la entidad beneficiaria y la entidad donante, y sus ele-mentos objetivos, naturaleza de la aportación y difusión de la colaboración con la entidad beneficiaria.

Posteriormente el autor se centra en los elemen-tos formales que rodean a los convenios de colabo-ración, y por último, analiza las obligaciones de la entidad

Bada, araudiak egiteko gaitasun hori garatzeak, nola ez, desadostasunak sortu ditu eremu ezberdinen artean, eta labur labur aztertu dira orain lan honetan, zerga honetan biltzen diren modalitateetako bat aztertuz bereziki: notariotza-agirien karga, egintza juridiko dokumentatuen artean.

Horretarako notario-agiriek lurralde erkidean eta autonomia-erkidego bakoitzean dituzten zergak deskribatzen ditu, gure lurralde historikoetan indarrean dagoen zerga-ordainketarekin konparatzeko. Azkenik, zerga honen azterketa orokorra laburtu eta errazten duten hainbat laburpen-koadro azaltzen ditu.

Zergak aldizkariaren zenbaki honetako hirugarren eta azken lanaren izenburua "La tributación de los convenios de colaboración empresarial en actividades de interés general como instrumento de mecenazgo" da. Extremadurako Unibertsitateko Finantza- eta zerga-zuzenbideko irakasle titularra den Juan Calvo Vérgez jaunak idatzi du. Egileak zehatz aztertu du mezenasgoaren esparruan dagoen baina, batez ere publizitate-babesari dagokionez, eremu horretatik kanpoko beste figura batzuen oso antzekoa den figura hori.

Idazleak, lehenengo eta behin, lankidetza-hitzarmenen figura mugatzen du, ezaugarri dituen funtsezko elementuak zehaztuz eta babes-kontratutik bereiziz. Ondoren, figura biei aplikatu beharreko zerga-araubide berezia aztertzen du.

Gero, figura honetan parte hartzen duten elementu subjektiboak aztertzen ditu (erakunde onuraduna eta erakunde emailea), baita elementu objektiboak ere (ekarpenaren izaera eta erakunde onuradunarekin egindako lankidetzaren hedapena).

Ostean, lankidetza-hitzarmenen inguruko elementu formalak aztertzen ditu autoreak eta, amaitzeko, erakunde onuradunaren

beneficiario, y, además, las consecuencias del incumplimiento de ésta de sus obligaciones.

El autor cierra su estudio con una serie de reflexiones finales sobre la aplicación de estas figuras, en términos de opción para los contribuyentes que se encuentren sopesando la alternativa de participar en actividades de esta índole.

La sección de Referencias se abre con las consultas que han sido objeto de informe en el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi a lo largo del presente ejercicio.

Además, se incluye una serie de resoluciones de la Junta Arbitral del Concierto Económico, así como sentencias del Tribunal Supremo relativas a recursos presentados contra resoluciones de esta Junta. Por su importancia "mediática y cuantitativa", incluimos tanto la resolución de la Junta Arbitral del caso "Rover" y la sentencia del Tribunal Supremo sobre este mismo caso que anuló dicha resolución, con el fin de poder contrastar ambas resoluciones.

Por último, se incluye un informe elaborado por Juan Carlos García Amezaga, referido a la previsión de cierre de la recaudación en el presente ejercicio 2011 y la previsión de ingresos para 2012.

La revista cierra con cierta novedad derivada de nuestro nuevo formato electrónico. Al sustituirse el habitual compendio normativo de carácter tributario comprensivo de la normativa publicada en los boletines oficiales de los tres Territorios Históricos, del País Vasco, de la Comunidad Foral de Navarra y del Estado por un acceso electrónico a la dirección donde se encuentra la publicación con carácter mensual de este mismo anexo, con la posibilidad añadida de acceder al texto completo de cada una de estas normas.

betebeharrak aztertzen ditu, baita betebeharrok ez betetzearen ondorioak ere.

Azterlana amaitzeko, hainbat azken hausnarketa egiten ditu figura horien aplikazioari buruz, horrelako jardueretan parte hartzeko aukera haztatzen dabiltzan zergadunentzako aukera gisa.

Aipamenen atalari dagokionez, ekitaldi honetan Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren txostena izan duten kontsultak aipatu dira bertan.

Gainera, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen hainbat ebazpen azaldu dira, baita Batzorde horren ebazpenen kontra aurkeztutako errekurtsoei buruzko Auzitegi Nagusiaren epaiak ere. Komunikabideetan izandako oihartzuna eta duten garrantzi kuantitatiboa direla eta, Arbitraje Batzordeak "Rover" kasuan emandako ebazpena eta Auzitegi Nagusiak ebazpen hori baliogabetzeko egindako epaia azaldu ditugu, ebazpen biak erkatu ahal izateko.

Azkenik, 2011ko ekitaldiko bilketaren itxiera-aurreikuspenari eta 2012rako diru-sarreren aurreikuspenari buruz Juan Carlos García Amezaga jaunak egindako txostena azaldu da.

Aldizkariak nolabaiteko berrikuntza izan du, formatu elektronikoa duelako orain. Izan ere, hiru lurralde historikoetako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Estatuko aldizkari ofizialetan argitaratutako araudia biltzen zuen zerga izaerako araudien ohiko laburpenaren ordez, eranskin honen hilabeteko argitalpena dagoen helbiderako sarbide elektronikoa eman da orain, arau bakoitzaren testu osoa ikusi ahal izateko aukerarekin.